

Herri osasuntsu bat egin dezagun tailerra



Eibarko Udalak ELIKADURA OSASUNGARRIARI buruzko kontzeptuak barneratu eta elikaduraren zein ARIKETA FISIKOA egitearen garrantzia ezagutzeko tailerrak antolatu ditu.

Tramitatzailea: Euskara-Kultura

Hartzaileak: Haur hezkuntzako 2. eta 3. mailakoentzat eta lehen hezkuntzako 1. eta 6. mailakoentzat.

Ordutegia: 3 talde. Ikasketa mailaren arabera.

HH. 2-3 eta LH. 1 mailakoek: 12:00etik 13:00ra

LH. 2, 3 eta 4 mailakoek: 16:30etik 17:30ra

LH. 5 eta 6 mailakoek: 17:30etik 18:30ra

Ikastaroaren prezioa:

HH 2, 3 eta LH 1:

8€ (Eibarren erroldatuak) **16€** (Eibartik kanpokoak)

LH 2-6 maila bitartean:

10€ (Eibarren erroldatuak) **20€** (Eibartik kanpokoak)

Ikastaroaren ordainketa: matrikula ordainketa

bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

Nork emango du: Nutrieibar

Non eta noiz: Portalea. Larunbatetan

HH 2-3 eta LH 1: martxoaren 15etik apirilaren 5era

LH 2-6 mailetakoe: martxoaren 8tik apirilaren 5era

Ikasle kopurua:

HH 2-3 eta LH 1: gutxienez 6 ikasle, eta gehienez

12 ikasle

LH 2-6 mailetakoe: gutxienez 8 ikasle, eta gehienez

16 ikasle

Ikastaroaren hizkuntza: euskeraz.

Eskaera egiteko tokia:

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

Eskaera egiteko epea:

otsailaren 17tik 26ra (biak barne)

Aurkeztu beharreko agiriak:

“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, www.eibar.net, eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen NANaren edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

NAN dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako

ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.net), **martxoaren 6an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da.** Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **martxoaren 4an 14:00etan** Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiak zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Bi zerrenda egongo dira, ordutegi edo txanda bakoitzeko bat.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **martxoaren 6tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: Talde batean matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldearen ikasle-kopuruz osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

Informazio gehiago: 943 708 437